



OIARTZUNGO
UDALA

Espedientearen kodea: 2023ZZ020013

Espedientearen gaia: 2024 urtean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Xabier de la Mota Vazquez, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024/03/26an, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“2024 URTEAN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO KULTUR EKITALDIAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK HERRIKO ELKARTEEI BANATZEKO ETA ORDAINTZEKO PROPOSAMENA. OINARRIEN ARABERA, BERTAN BAIMENDUTAKO GASTUA HANDITZEA, GASTU-ONARPENA EGITEA ETA DIRULAGUNTZAREN LEHEN ZATIA (%80A) ORDAINTZEA.

2023/11/28an Udal Tokiko Batzarrak “2024 urtean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko diru laguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen.

Horretarako, 75.000 € ko izendapena egin zuen Udalak 2024 urteko 1 0331.481.334.00.01.2024 zenbakidun partidaren kontura.

Diru laguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 diru laguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea urtarrilak 1etik 31a arte ireki zen.

Epearen barruan, 34 kultur ekintzetarako eskaerak aurkeztu dira. Ekintza hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko 96.713 € ko dirulaguntza eskaerak aurkeztu dira.

Tokiko Batzarrak onartutako oinarriek zera diote hitzez hitz bere 4.2. artikuluan:

“4.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 75000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.01.2024 zenbakidun partidaren kontura.

Oiartzungo Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.”

Herritarrak Informazio Batzordeak gai honi buruz egindako proposamena ikusirik eta beronekin adostasunean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa



OIARTZUNGO
UDALA

ERABAKI DU

Lehena.- Epearen barruan aurkeztutako eskaerak aztertuta, eta deialdiaren oinarrietako 4.2 artikulua araberan, onartutako izendapena eta baimendutako gastua 21.713 €-tan handitzea, 96.713 € arte. Oartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.01.2024 zenbakidun partidaren kontura.

Bigarrena.- 2024ean Oartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkartei banatzeko eta ordaintzeko proposamena, erantsitako taulan txertatzen dena, onartzea, guztira 96.713 € ko dirulaguntzak onartuz.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da 77.370,40 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, 19.342,60 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

OHIKO DIRULAGUNTZAK 2024					
	ESKATZAILEA	PUNTUAK GUZTIRA	ESKATUTA LAGUNTZA	DIRULAGUNTZA	ORAIN ORDAINDU
1	MARTZELINA BERT.ELK. ANONIME POP.	50	3.025,00 €	3.025,00 €	2.420,00 €
2	MARTZELINA BERT.ELK. TEILATUPEAN.	62	1.705,00 €	1.705,00 €	1.364,00 €
3	MARTZELINA BERT.ELK. BERTSOTRAMA	44	1.141,00 €	1.141,00 €	912,80 €
4	KU-KU ELKARTEA	93	4.720,00 €	4.720,00 €	3.776,00 €
5	ELIZALDEKOAK ELKARTEA	81	2.589,00 €	2.589,00 €	2.071,20 €
6	ORGANOZALEAK	81	3.000,00 €	3.000,00 €	2.400,00 €
7	IBARGAIN MUSIKA ESKOLA	54	3.290,00 €	3.290,00 €	2.632,00 €
8	ANTZERKIZALE ELKARTEA: GAU BELTZA	93	6.890,00 €	6.890,00 €	5.512,00 €
9	ANTZERKIZALE ELKARTEA: OARSOALDEAKO TOPAKETA	44	550,00 €	550,00 €	440,00 €
10	AIA	78	3.270,00 €	3.270,00 €	2.616,00 €
11	MUNANIER: GARAG. AZOKA	87	3.000,00 €	3.000,00 €	2.400,00 €
12	MARI DOMINGI, OLENTZEROREN LAGUNTZAILEAK	79	4.445,00 €	4.445,00 €	3.556,00 €
13	HITZEN LIHOA: ARTE EGUNAK	76	9.180,00 €	9.180,00 €	7.344,00 €
14	OIDULTZ	70	3.000,00 €	3.000,00 €	2.400,00 €
15	GAIZKA GARCIA: SAGARDO EGUNA	65	4.000,00 €	4.000,00 €	3.200,00 €
16	IRAITZ MATEO: IKUSEZINENTZUNEZKO	60	1.100,00 €	1.100,00 €	880,00 €
17	ENDIKA LOIOLA: OARTZUARROCK	65	2.450,00 €	2.450,00 €	1.960,00 €
18	HAURTZARO IKASTOLA	42	3.100,00 €	3.100,00 €	2.480,00 €
19	EKAITZ ZABALTZA: ERDI AROKO AZOKA	64	5.400,00 €	5.400,00 €	4.320,00 €
20	METROKOADROKA 21 AULKI	64	5.500,00 €	5.500,00 €	4.400,00 €
21	METROKOADROKA GEZI BELTZAK	90	1.400,00 €	1.400,00 €	1.120,00 €



OIARTZUNGO
UDALA

22	LABORE JAN ETA JABE LIBURUA	78	200,00 €	200,00 €	160,00 €
23	LABORE ALCARRAS	55	500,00 €	500,00 €	400,00 €
24	LABORE XARABEA	46	544,50 €	544,50 €	435,60 €
25	LABORE HAUSNARREAN LIBURUA	49	423,50 €	423,50 €	338,80 €
26	KANTAGILTZA ZAI ZOI ELE	46	3.150,00 €	3.150,00 €	2.520,00 €
27	1545 K. ELKARTEA: IRAKURZALETASUNA	52	2.840,00 €	2.840,00 €	2.272,00 €
28	1545 K. ELKARTEA: URTEKO EGITASMOAK	52	2.150,00 €	2.150,00 €	1.720,00 €
29	1545 K. ELKARTEA: GAZTE LITERATUR TALDEA	68	2.750,00 €	2.750,00 €	2.200,00 €
30	1545 K. ELKARTEA: LITERATURA PLAZARA	66	4.000,00 €	4.000,00 €	3.200,00 €
31	1545 K. ELKARTEA: HAUR LITERATURA	96	950,00 €	950,00 €	760,00 €
32	1545 K. ELKARTEA: OIHARTZUN FILOSOFIKOA	42	2.650,00 €	2.650,00 €	2.120,00 €
33	1545 K. ELKARTEA: GALDEREN AGORA	60	3.200,00 €	3.200,00 €	2.560,00 €
34	RAKETISTAK	75	600,00 €	600,00 €	480,00 €
	GUZTIRA	2227	96.713,00 €	96.713,00 €	77.370,40 €

“
Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberako, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak
Xabier de la Mota Vazquez

O.E.
Alkateak
Joana Mendiboure



EKS | CSV: **ESKUa8ea6d45-6ca2-4119-a46e-d6135f305bf4**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZZ020013-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (OIARTZUNGO UDALA)